







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Energia elektrikoa

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %1,4 egin zuen behera apirilean, 2016. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %10,3 igo zen; etxekoan, berriz, %27 jaitsi zen eta hirugarren sektorean edo zerbitzuetan %11,5, aurtengo Aste Santuaren dataren eraginez, ia martxoan izan baitzen. Apirilera arte metatutako kontsumoak %0,5 egin zuen gora, 2016ko epealdi berarekin alderatuta; etxeko sektorean %3,1 jaitsi zen, zerbitzu arloan %1,1 eta industrian, ordea, %3,1 igo zen.

Aurtengo apirilera arte, industrian gora egin zuten sektoreak, besteak beste, hauexek izan ziren: kimikoa (+%8,5), burdinazkoa ez den metalurgia (+%8,8), kautxuzko eratorriak (+%6,7) eta beiragintza (+%8). Behera egin zuten sektoreak siderurgia eta galdagintza (-%0,1) izan ziren.

Gas naturala







Apirilean, gas naturalaren guztizko kontsumoak %1,3 egin zuen behera, 2016ko apirilean izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %16,2 igo zen eta gainerako sektoreena, aldiz, %3,1 jaitsi zen. Apirilera arte metatutako kontsumoak %2,3 egin du gora, aurreko epealdiaren aldean, (+%6,3 CCTT-n eta +%1,9 gainerako sektoreetan).

Erregaiak garraioan

Martxoan, garraioan erregaien kontsumoa %18,5 igo zen, 2016. urteko hil berean izandakoarekin konparatuta. Gasolinarenak %7,6 egin zuen gora eta A gasolioarenak %19,6. Lehen hiruhilekoan metatutako kontsumoa %11,1 igo zen, 2016koarekin alderatuta. Hala, gasolinaren kontsumoak %3,4 egin zuen gora eta A gasolioarenak %11,9.

Iturriak: EEEk prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera



EAEtik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan






Apirilean, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 97,7 milioi kupel izan zen (2016ko apirilean izandakoaren aldean, %1,8 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %0,5 egin zuen gora kontsumoak, 14,2 Mbpd kantitatera iritsiz; Txinan %2,9 egin zuen gora, eta 12,9 Mbpd kontsumitzera heldu zen eta AEBetan %3,4, eta 19,9 Mbpd kopuruan kokatu zen. Munduan, oro har, azken 6 hilabeteetan, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,7 igo da, Txinan %3,4, AEBetan %0,5 eta Europar Batasunean %2,6.

Energiaren kontsumoa Espainian

Espainian, gas naturalaren kontsumoak %3,6 egin zuen behera apirilean, 2016ko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Apirilera arte metatutako kontsumoak %5,7 egin zuen gora. Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, behera egin zuen apirilean, %5,3, 2016ko apirilean izandakoaren aldean. Apirilera arte metatutako kontsumoak %0,2 egin zuen behera, iazko epealdi berarekin erkatuta. Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %5,4 egin zuen gora martxoan, 2016ko hil berean izandakoarekin konparatuta; gasolinaren kontsumoa %2,6 igo zen eta gasolioena %5,9. Lehen hiruhilekoan metatutako kontsumoak %2,4 egin zuen gora, 2016. urteko epealdi beraren aldean, (%0,3 igo zen gasolinena eta %2,9 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoaren kontsumoak %9,7 egin zuen gora martxoan, eta lehen hiruhilekoan izandako kontsumoak %10,8 egin zuen gora, 2016ko epealdi berarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEk prestatua, AIE eta EIAren datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 53\$ (49,5 €) izan zen apirilean. Urtebetean prezioak %25,6 egin zuen gora (%32,8 eurotan).

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 46,7 €/MWh izan zen apirilean; duela urtebete zegoenaren aldean, %93,7 egin zuen gora.

Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 17,3 €/MWh izan zen martxoan, eta %13,9 igo zen, 2016ko hil berean izandakoarekin erkatuta. Apirilean, EGIX-en prezioa 16,4 €/MWh izan zen (2016ko apirilean izandakoarekin alderatuta, %27,2 igo zen). Spot merkatuetan, apirilean Henry Hub-en prezioa 9,8 €/MWh izatera iritsi zen eta Japonian 18,8 €/MWh (2016ko hil horretan izandakoaren aldean, %70,8 eta %7,5 egin zuten gora, hurrenez hurren).

Erregaien prezioa

EAEn, martxoan, gasolioaren prezioa 1,1 €/l izan zen (urtebetean %14,5 igo da), eta gasolinarena 1,2 €/l (urtebetean %10,2 egin du gora).

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 4,7 €/t izan zen apirilean, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %17 jaitsi da.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, EEX, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.